

3 E-ak: eleberria, egungoa eta etxekoa

GARAZI ARRULA RUIZ

Bakarka egiten den jardunetako batek, behintzat, ez du zertan bakardadean bukatu. Azken 10-15 urteotan irakurle talde/txoko/solasaldi/eta abarrak finkatu egin dira gurean, fenomeno kultural ez ezik sozial bihurtzeraino. Fenomeno horrekiko lilura (txundiduratik deliriora doan adiera zabalean) dago, beraz, zutabe honen sorburuan. Azken bi ikasturteetako irakurgaien zerrendak eta zenbait datu eskatu dizkiegu liburutegi nahiz irakurle txokoen gidariei, hala nola liburuak hautatzeko irizpideak, antolatzaileak, maiztasuna eta irakurleen kopurua. Eskertzekoa da erantzule guztien prestasuna. Hemen lagin bat (ahalik eta osoena) baizik ez dugu hartu, joeren bila; zenbaki eta zehaztasun gehiago nahi duenak Elearazi.org atarian du bertsio luzea.

Berrogeitik gora irakurle txoko daude, gehienak, bistan denez, Bizkaian eta Gipuzkoan. Horietarik aunitz euskara elkarteek antolatzen dituzte (badira bizpahiru gaztetxe ere), edo liburutegiek euskarazko ekintzei eskaintzen dizkieten jardueretako parte dira. Lagin modura 10 aukeratu ditugu: Gasteiz, Arrasate, Bilbo (Bidebarrieta), Bermeo, Donostia (Liburutegi Nagusia), Lizarra, Miarritze, Hernani, Zumaia eta Ea. Moderatzaile lanetan idazle bat dute askok, eta moderatzaile berak gida ditzake txoko bat baino gehiago (ez hautatutako 10eko zerrendan). Oro har moderatzaileak aukeratzen ditu irakurgaiak, zerrenda «irakurleen proposamenekin» osatzen badu ere. Hamabostean, hilean edo bi hilean behin elkartzen dira uda salbu, baina bada urte osoan biltzen denik ere. Talde txikiak izaten dira, 6tik 18ra bitartean, eta idazlea bertaratzen den egunetan zenbatekoa handitu egin ohi da.

Orotara, azken bi ikasturteetan, hamar txoko horien artean 13 argitaletxeko 171 irakurgai izan dituzte, 110 titulu; hortaz, liburuak errepikatzen dira, bereziki gehien ageri diren hiru argitaletxeetan: Alberdania, Susa eta Elkar. Klub gehienek nahiago izaten dituzte azken bizpahiru urteetan kaleraturikoak; horiek dira tituluaren erdia, baina irakurgaiei erreparatuz gero, handitu egiten da kopurua. Sei (!) argitaletxe ditugu liburu bakarrarekin edo birekin 110 tituluko zerrendan. Iparraldeko argitaletxerik ez da ageri, ezpada Miarritzeko irakurgaien artean.

Generoei begiratzuz gero, irakurgaien nahiz tituluaren %67 nobelak edo narrazio luzeak osatzen du. Hurrengo multzo handiena ipuinena dugu, %18. Poesia liburuak 9 aldiz ageri zaizkigu, baina tituluak errepikatu egiten dira, eta, beraz, 5 baino ez dira. Saiakerak, aldiz, 8 dira, eta ez da titulu bat bera ere errepikatzen. Hiru klubetan ez dute ez saiakerarik ez poesiarik landu azken bi ikasturteetan. Aipatzekoa da zerrenda osoan antzezlan bakarra dugula, hiru kronika liburu, eta komikirik bat ere ez.

Miren Ibarluzeak aurretik ere esana zigunez, euskaraz sortutakoen aldeko joera handia da. Irakurgaien %70,7 eta tituluaren %66 jatorriz euskaraz sortutakoak dira, itzulitakoen aldean. Itzulpenetan, Igelaz gainera, Alberdania, Elkar eta Txalaparta etxeetako irakurgaiak dira gehiengoa.

Generoari erreparatuz gero, nobelak eta ipuinak baizik ez ditugu itzulitakoen artean, eta horietatik nobelak dira alde handiz (%83) nagusi. Batez beste bosna itzulpen irakurri dituzte klubetan, nahiz eta alde handia dagoen batetik bestera, zerrendetako bik 9 itzulpen baitituzte, eta beste bik 1-2.

Beste hamaika datu atera genitzake, autoreen generoa kasu: txokoetan oro har irakurle gehienak emakumeak izan arren, 65 euskal autoreetatik 20 dira emakumeak (lady boom-ik ez, beraz); itzulpenetan, berriz, aldea txikitzen da, 36tik 14. Alta, hemen aipaturikoak intuizio ziren datu baino lehenago, intuizio konpartitu, esanen nuke; beraz —eta datuak aski bistakoak diren arren—, generoen, nobedadeen, argitaletxeen, itzulpenen eta abarren desorekari begira, beharrezkoa iruditzen zait horren gaineko gogoeta: goiburuko 3 E horiek egonkortzen eta irizpide horiek betetzen dituen kanon bat elikatzen segitu nahi dugu irakurle txokoen bidez (ere)? Noren mesedetan? Hori al da benetan euskarazko irakurle komunitatearen isla? Hori bihurtuko dugu erreferente?